

PRENTSA OHARRA

2022 /05/09

ELKANO ITSAS HERRIA, EUSKAL KOSTALDEAN LEHORRERATUKO DEN ZEHARKALDI KULTURALA ITSAS ONDAREAREN BITARTEZ EUSKAL HERRIAK ITSASOREAKIN IZAN DUEN LOTURA BERRESKURATZEKO

- Euskal Herriaren itsas historian oinarria duen ekimena da eta Elkano Fundazioak, Albaolak eta Donostiako Euskal Itsas Museoak garatu dute
- Maiatzaren 26an Pasaiaiko Itsas Festibalean hasita, *Juanita Larando* patatxak euskal kostaldeko hogeitau herri baino gehiago zeharkatuko ditu eta irailean bukatuko da Getariako Elkano Egunean parte hartu ondoren
- Zeharkaldia bisitatuko diren herrietan egingo den kultur programazio zabalarekin osatuko da, erakusketa ibiltari bat eta itsasoa eta itsas ezagutzarekin lotutako jarduerak multzo bat biltzen dituena

Itsasoarekiko harremana berreskuratzea, Euskal Herri osoak partekatzen duen itsas historiaren bidez –eta Elkanoren Lehen Mundubiraren testuinguruan–; hori da Elkano Itsas Herriaren helburua, Elkano Fundazioa, Albaola eta Donostiako Euskal Itsas Museoaren eskutik garatuko dena. Maiatza bukaeratik eta irailera arte, *Juanita Larando* patatxak itsasotik burutuko den zeharkaldia osatuko du eta Bizkaia, Gipuzkoa eta Lapurdiko hogeitau herri baino gehiagotan geldituko da, eta hori gertatzen den bitartean plazetan itsas ondareari buruzko jarduerak antolatuko dira, kostaldeko herriek komunean duten ondarearen ingurukoak.

Gipuzkoako ahaldun nagusia eta Elkano Fundazioaren patronoak, Markel Olanok, Albaolako presidentek, Xabier Agotek; Euskal Itsas Museoaren zuzendariak, Xabier Alberdik; eta Elkano Fundazioaren zuzendariak, Ion Irurzunek, ekimena aurkeztu dute gaur goizean Donostian, Pasaia Itsas Festibalean (maiatzak 26-29) hasiko dena eta euskal kostaldean zehar ibiliko dena irailaren 18ra arte, Ziburu eta Donibane-Lohizunen egingo diren Europako Ondare Jardunaldietan, eta irailaren 6an Getarian porturatu ondoren Elkano Eguna eta Lehorreratzearen errepresentazioa direla eta. Aurkezpen ekitaldian Elkano Itsas Herriaren ibilbidean geldialdi izango diren zenbait

herritako ordezkariak ere egongo dira, besteak beste, Pasaia, Getaria, Barakaldo, Lekeitio edo Donibane-Lohizune, Ibaialde eta Urmuga elkarrekin batera.

“Euskal Herria sozialki, kulturalki eta ekonomikoki itsasoari begira garatu da, munduarekiko zubi irekia dena. Ez zen kasualitatea izan euskal nabigatzaile batek munduari bira emateko beharrezko ezagutza eta gaitasuna izatea. Elkano herri baten itsas kulturaren isla da, eta proiektu honen bitartez, ondare hori ezagutzera eman nahi dugu, zabaldu eta goraiatu, bizirik mantentzeak aberastu egiten gaituelako gizarte gisa, herri gisa”, azpimarratu du ahaldun nagusiak. Elkano Itsas Herriak gaineratu duenez, eragileen arteko lankidetzaren bidez *“topagune dinamiko eta bizia”* sortuko du euskal kostalde osoko eragile eta biztanleen artean.

Xabier Alberdik, Euskal Itsas Museoaren zuzendariak, nabarmendu du Elkano Itsas Herria proiektua *“udalerrien eta bertako biztanleen arteko interdependentzia-harremanen sare trinkoa eta Euskal Herria osatzen zuten lanbideak eta itsas jarduerak kultura biziberritzeko saiakera bat”* dela, *“non Juan Sebastian Elkano edo Lehen Mundubira ahalbidetu zuen teknologia bezalako pertsonaiak sortu ziren”*.

Bestalde, Xabier Agotek adierazi du *“Albaolan oso pozik”* daudela *“proiektu honetan parte hartzeagatik, Elkano Itsas Herriaren bidez Juan Sebastian Elkanoren figura merezi duen moduan ezagutzera emateko aukera dugulako”*.

Kultur programazioa

Maiatza eta iraila bitartean, *Juanita Larandok* –XVIII. mendeko patatxa baten erreplika, belaz eta arraunez mugitzen dena eta Albaolako Aprendiztegi erribera ontzigitza eskolan eraikia izan dena– euskal kostalde guztia portuz portu zeharkatuko du.

Elkano Itsas Herriaren zeharkaldi kulturalaren osagarri, erakusketa ibiltari bat egingo da, itsas kulturak euskal gizartearen garapenean izan duen garrantzia nabarmentzen duten hainbat bloke tematikoz osatua. Gainera, erakusketa horrekin batera, itsasoa, nabigazioa, Lehen Mundubira, itsas ezagutza, Euskal Herriko itsas historia oro har, eta bereziki bisitatuko diren herrien inguruko zenbait jarduera egingo dira. Hitzaldi historikoak, solasaldiak, bertsolariak, musika, dantza, ipuin kontalariak, tailerrak, dokumentalak eta ontzian nabigatzen ikasteko asmoz *Juanita Larandorekin* egingo diren irteerak, ekintza horiek guztiek plaza bakoitzean publiko guztientzako egitaraua osatuko dute.

Kresala Dantza Taldearen “Amaria & Dolore. Elcano Lehen Mundubira”; “Elkano battela, xumea baina gurea, Nerea Alberdi eta Kepa Elgoibarren musika eta Koldo Amestoy narratzailearekin; “Elkarrekin Elcano” haurrentzako ikuskizuna, Iñaki Martiarena “Mattin” eta Ixabel Agirresarobe ipuin kontalariarekin; Mitxel Etxekopar zuberotarrak Elkanori buruz sortu duen pastoral baten antzerki eta musika elementuekin sortutako errezitaldia; “Pedalkadak itsasoan” eta “Elkano, haizeari mila galdera” dokumentalen proiektzioa; astronomiaren gaineko haurrentzako tailerrak eta Aranzadi zientzia elkartearekin egingo direnak; solasaldiak erakusketa ibiltarian Euskal Itsas Museoaren eskutik edo itsasoarekin lotura duten ofizio tradizionalen erakustaldia, Albaolarekin; horiek izango dira kultur programazioaren osagaietako batzuk, eta udalerrri bakoitzean bere nortasuna emango zaio tokiko sortzaileen parte-hartzearekin.

Elkano Itsas Herriaren ibilbidea

Getarian hasita, Elkano Itsas Herria Pasaia Itsas Festibalean hasiko da (maiatzak 26-29). Ekainean Bizkaira mugituko da eta bertan hamar bat herri bisitatuko ditu, besteak beste, Ondarroa, Bilbo, Portugalete –bere fundazioaren 700 urtemugaren ospakizunetan– Elantxobe edo Lekeitio. Uztailean Gipuzkoara itzuliko da eta Mutrikutik sartuz, besteak beste, Deba-Itziar, Zumaia edo Orio bisitatuko ditu, gero Hondarribira joateko. Uztaila bukaeran Urmuga elkarte eta EuskarAbentura espedizioarekin batuko da Txingudi inguruan, eta Lapurdin sartuko da, barnealdean dagoen Azkaingo porturaino iritsiz.

Atsedenaldirik baten ondoren, abuztuan bere ibilbidea jarraituko du Gipuzkoa eta Lapurdiko kostaldean, aurretik bisitatu ez dituen herrietan. Azkenik, irailean, Getariara itzuliko da Elkano Egunaren inguruan egingo den programazio bereziko. Hortik aurrera eta Donostiako Euskal Jailetatik pasa ondoren, zeharkaldiaren azken txanpa Ziburu eta Donibane-Lohizunen osatuko da Europako Ondare Jardunaldietarako itzuliz. Antolakuntza oraindik harremanetan dago beste herri batzuekin, ibilbidean sar daitezzen.

Elkano Itsas Herria erakunde eta euskal kostaldeko herrien arteko saregintza lanaren emaitza da. Elkano Fundazioak, Albaola eta Donostiako Euskal Itsas Museoak proiektua garatu dute, Getaria eta Pasaia udalen laguntzarekin eta Euskal Herri osoko eragile eta administrazio publiko askoren parte-hartzearekin: Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundia, Iparraldeko Euskal Hirigune Elkargoa, Gipuzkoa, Bizkaia eta Lapurdiko udalak; baita Urola-Kostako Mankomunitatea ere, BasqueTour, Eusko Label, HAZI eta Pasaia Itsas Festibala, Urmuga eta EuskarAbentura.



Proiektuaren inguruko xehetasun gehiago ikusi atxikitzen den dossierrean.

Prentsa kontaktua:

Nagore García de Vicuña
T. +34 630986610

NOTA DE PRENSA

09/05/2022

ELKANO ITSAS HERRIA, UNA TRAVESÍA CULTURAL QUE DESEMBARCARÁ EN LA COSTA VASCA PARA RESCATAR EL VÍNCULO DE EUSKAL HERRIA CON EL MAR A TRAVÉS DEL PATRIMONIO MARÍTIMO

- Es una iniciativa inspirada en la historia marítima del pueblo vasco y desarrollada por la Fundación Elcano, Albaola y el Museo Marítimo Vasco de Donostia
- Comenzando el 26 de mayo en Pasaia Itsas Festibala, el patache *Juanita Larando* recorrerá más de veinte localidades de la costa vasca y finalizará en septiembre tras participar en el Día de Elcano en Getaria
- La travesía se completa con una extensa programación cultural en las localidades visitadas, que incluye una exposición itinerante y un conjunto de actividades ligadas al mar y al conocimiento marítimo

Recuperar la relación con el mar a través de la historia marítima compartida por el conjunto de Euskal Herria –con la Primera Vuelta al Mundo de Elcano como telón de fondo– es el objetivo de Elcano Itsas Herria, una travesía cultural desarrollada por la Fundación Elcano, Albaola y el Museo Marítimo Vasco de Donostia. Desde finales de mayo y hasta el mes de septiembre, el patache *Juanita Larando* realizará una travesía por mar y fondeará en más de veinte localidades de Bizkaia, Gipuzkoa y Lapurdi, al tiempo que sus plazas acogerán diversas actividades con el foco puesto en una cultura ligada al mar, patrimonio común de los pueblos costeros.

El diputado general de Gipuzkoa y patrono de la Fundación Elcano, Markel Olano; el presidente de Albaola, Xabier Agote; el director del Museo Marítimo Vasco, Xabier Alberdi; y el director de la Fundación Elcano, Ion Irurzun, han presentado esta mañana en Donostia la iniciativa, que arrancará en Pasaia Itsas Festibala (26-29 de mayo) y recorrerá el litoral vasco hasta el 18 de septiembre, día en el que se celebran las Jornadas Europeas del Patrimonio en Ciboure-San Juan de Luz, tras recalar el 6 de septiembre en Getaria, coincidiendo con el Día de Elcano y la representación del Desembarco. Al acto de presentación han asistido representantes de algunos de los municipios que serán parada de Elcano Itsas Herria, como Pasaia, Getaria, Barakaldo, Lekeitio o San Juan de Luz / Donibane -Lohizune, además de las asociaciones Ibaialde y Urmuga.



EUSKAL
ITSAS
MUSEOA MUSEO
MARÍTIMO
VASCO



ELKANO

Euskaldunak
mundubiran,
berriro ere

“Euskal Herria se ha desarrollado social, cultural y económicamente mirando al mar como puente abierto con el mundo. No fue casualidad que un navegante vasco tuviera el conocimiento y la capacidad necesarias para dar la vuelta al mundo. Elkano es un reflejo de la cultura marítima de un pueblo y, a través de este proyecto, queremos dar a conocer, difundir y celebrar ese patrimonio, porque mantenerlo vivo nos enriquece como sociedad, como pueblo”, ha señalado el diputado general. Elkano Itsas Herria, según ha añadido, a través de la colaboración entre agentes generará además *“un punto de encuentro dinámico y vivo”* entre los diferentes agentes y habitantes de los municipios de toda la costa vasca.

Xabier Alberdi, director del Euskal Itsas Museoa, ha destacado que el proyecto Elkano Itsas Herria constituye *“un ensayo de revitalización cultural de la tupida red de relaciones de interdependencia entre los municipios, sus pobladores y los oficios y actividades marítimas que conformaban el País Vasco donde surgieron personajes como Juan Sebastián Elkano o la tecnología que hizo posible la Primera Vuelta al Mundo”*.

Por su parte, Xabier Agote ha manifestado que *“en Albaola estamos felices de formar parte de este proyecto, ya que a través de Elkano Itsas Herria tenemos la oportunidad de dar a conocer la figura de Juan Sebastian Elkano tal y como se merece”*.

Programación cultural

Desde mayo hasta septiembre, el *Juanita Larando* – réplica de un patache del siglo XVIII propulsado a vela y remo que ha sido construido en la escuela de carpintería de ribera Aprendiztegi de Albaola–, recorrerá puerto a puerto toda la costa.

La travesía cultural Elkano Itsas Herria se complementará con una exposición itinerante compuesta por varios bloques temáticos que destacan el peso que ha tenido la cultura marítima en el desarrollo de la sociedad vasca. Además, dicha exposición irá acompañada de un conjunto de actividades en torno al mar, la navegación, la Primera Vuelta al Mundo y el conocimiento naval y la historia marítima de Euskal Herria en general, y las localidades visitadas en particular. Charlas históricas, coloquios, bertsolaris, música, danza, cuentacuentos, talleres, documentales, incluso salidas a bordo del *Juanita Larando* para aprender a navegar en la embarcación, configurarán en cada plaza un variado programa para todos los públicos.

“Amoria & Dolore. Elkano Lehen Mundubira” de Kresala Dantza Taldea; *“Elkano battela, xumea baina gurea”*, con la música de Nerea Alberdi y Kepa Elgoibar y el narrador Koldo Amestoy; el espectáculo infantil *“Elkarrekin Elkano”*, con el dibujante Iñaki Martiarena *“Mattin”* y la cuentacuentos Ixabel Agirresarobe; el recital con teatro y música que incluye elementos de una

pastoral, que el zuberotarra Mitxel Etxekopar ha creado sobre Elkano; la proyección de los documentales “Pedalkadak itsasoan” y “Elkano, haizeari mila galdera”; talleres infantiles de astronomía en colaboración con la sociedad de ciencias Aranzadi; conversaciones en la exposición itinerante de la mano del Euskal Itsas Museoa o exhibición de oficios tradicionales relacionados con el mar, de la mano de Albaola, serán algunos de los ingredientes de la programación cultural, que en cada municipio adquirirá su propia personalidad con la participación de creadores locales.

El recorrido de Elkano Itsas Herria

Comenzando en Getaria, Elkano Itsas Herria arrancará en Pasaia Itsas Festibala (26-29 de mayo). En junio se moverá a Bizkaia, donde visitará una decena de localidades, entre otras, Ondarroa, Bilbao, Portugalete –en la celebración del 700 aniversario de su fundación– Elantxobe o Lekeitio. En julio regresará a Gipuzkoa y entrando por Mutriku irá visitando, entre otros, Deba-Itziar, Zumaia y Orio, para continuar hasta Hondarribia. A finales de julio se unirá a la asociación Urmuga y a la expedición EuskarAbentura en la zona de Txingudi y entrará en Lapurdi, llegando hasta el puerto interior de Ascain.

Tras un pequeño descanso, en agosto continuará su andadura entre la costa de Gipuzkoa y Lapurdi llegando a pueblos no visitados previamente. Finalmente, en septiembre, regresará a Getaria con motivo de la programación especial del Día de Elkano. A partir de ahí, tras pasar por Donostia en las Euskal Jaiak, el recorrido tendrá un último tramo regresando a Ciboure-San Juan de Luz para las Jornadas Europeas del Patrimonio. La organización está en contacto con otras localidades de la costa para incorporarlas al itinerario.

Elkano Itsas Herria es fruto del trabajo en red de las instituciones y las localidades costeras vascas. Desarrollada por la Fundación Elkano, Albaola y el Museo Marítimo Vasco de Donostia, cuenta con la colaboración de los ayuntamientos de Getaria y Pasaia, y la participación de numerosos agentes y administraciones públicas del conjunto de Euskal Herria: Gobierno Vasco, Diputación Foral de Gipuzkoa, Euskal Hirigune Elkargoa de Iparralde, ayuntamientos de Gipuzkoa, Bizkaia y Lapurdi, así como la Mancomunidad de Urola-Kosta, BasqueTour, Eusko Label, HAZI y Pasaia Itsas Festibala, Urmuga y EuskarAbentura.



[Ver más detalles sobre el proyecto en el dossier adjunto.](#)

Contacto de prensa:

Nagore García de Vicuña
T. +34 630986610